

Euskal AEko jaiotza-tasa 28-EBko batez bestekoaren oso azpitik da

1.000 biztanleko 8,8 jaiotza; 28-EBn 10,0

Jaiotza-tasa adierazle demografiko nagusietakoa da. Euskal AEko jaiotza-kopurua txikienetako bat zen 2013an 28-EBn, Eustaten eta Eurostaten datuen arabera. 1.000 biztanleko 8,8 jaiotza; 28-EBn batez beste 10,0.

28-EBko jaiotza-tasa

	2004	2009	2013
Euskal AE	9,3	9,7	8,8
EU 28	10,4	10,8	10,0
EU 27	10,5	10,8	10,0
Irlanda	15,2	16,7	15,0
Frantzia	12,8	12,8	12,4
Erresuma Batua	11,9	12,7	12,1
Suedia	11,2	12,0	11,8
Luxenburgo	11,9	11,3	11,3
Belgika	11,3	11,8	11,2
Zipre	11,4	11,9	10,8
Finlandia	11,0	11,3	10,7
Estonia	10,3	11,8	10,3
Eslovenia	9,0	10,7	10,2
Letonia	9,1	10,3	10,2
Herbehereak	11,9	11,2	10,2
Txekiar errepublika	9,6	11,3	10,2
Eslovakia	10,0	11,4	10,1
Lituania	8,8	10,2	10,1
Danimarka	12,0	11,4	10,0
Polonia	9,3	10,9	9,7
Malta	9,7	9,8	9,5
Austria	9,7	9,2	9,4
Kroazia	9,4	10,4	9,4
Bulgaria	9,1	10,9	9,2
Espainia	10,6	10,6	9,1
Errumania	10,1	10,9	9,1
Hungaria	9,4	9,6	9,0
Grezia	9,6	10,5	8,6
Alemania	8,6	8,1	8,5
Italia	9,8	9,6	8,5
Portugal	10,4	9,4	7,9

Iturria: Eurostat eta Eustat. Jaiotzen estatistika

2009an Euskal AEko tasa 9,7 zen; 2004an 9,3. 2013an orain hamar urte baino gutxiago.

Urte horietan, 2004 eta 2009an, tasak 10,4 eta 10,8 ziren 28-EBn, mila biztanleko eta batez beste.

2013an, 28-EBn, gure tasaren azpitik: Portugal (7,9); Alemania, Italia (8,5); Grezia (8,6). Tasa altuenak: Irlanda (15,0); Frantzia (12,4), Erresuma Batua (12,1); Suedia (11,8).

2013an Espainian 9,1 zen, Euskal AEkoaren gainetik. 2004 eta 2009an, 10,6.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskadi 28-EBn; prentsa-ohar gehiago